

Hitzaurre gisa

Uxo Anduaga

Soziolinguistika Klusterra

u.anduaga@soziolinguistika.eus



Motibo bikoitzak bilakatzen du berezi esku artean duzun honako ale hau. Batetik, azken 26 urteetan egindako urratsek eta idatzitako orriek hiru zifrako zenbaki biribila estreintzeko bidea eman izanak. 100. alea bada nolabaiteko mugarri, atzera begira jartzeko aitzakia, eta orain arte argitaraturiko guztiak eta horietan parte hartu dutenak gogora ekartzeko eta eskertzeko aukera. Baina bada, halaber, aurrera begira jartzeko abagunea. Eto-

rriko diren beste hainbesteren artean hondar ale bat gehiago dela jabetzekoa, eta beraz, egindakoa osatzen eta hobetzen jarraitzeko pizgarria.

100. ale hau, halaber, duen edukiak egiten du aparteko. 99. alean ikusten hasitako "Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)"-ren jarraipena bildu baita bertan. Gogora dezagun hausnarketa horrek, batetik, azken 30 urteetan euskarak izan duen bilakaera nolakoa izan den agerian jartzea duela helburutzat. Eta horrekin batera, diagnostiko hori oinarritzat hartuta aurrera begirako erronkak zeintzuk diren identifikatzea bilatzen du.


Ariketa horretan, BAT aldizkariko aurreko alean Iñaki Martinez de Lunaren hizkuntza gaitasunaren inguruko ekarpenak eta Xabier Erizek iritzien eta jarreraren inguruan egindako hausnarketak biltzen dira. Horrekin batera, artikulu bakoitzaren inguruan ekarpenegile desberdinek egin dituzten iruzkinak jaso dira, jatorrizko testuak aberastu eta osatzeko hausnarketak proposatuz horietan.

Ale honek **Mikel Zalbide**k hizkuntza erabilerari buruz egin duen lana hartzen du ardatz. “Mintzajardunaren egoera eta azken urteetako bilakaera. Aurrera begirako erronkak” izenburua duen testuak, sakonki aztertzen ditu azken hamarkadetan euskarak izan duen eboluzioa, Euskal Herri osoa kontuan hartzen duen analisi sinkro-

niko eta diakronikoa eginez horretarako. Horrekin batera etorkizuneko desafioak identifikatzen ditu eta horiei erantzuteko zenbait proposamen ere iradokitzen ditu, testuan zehar bereziki azpimarratuz euskarak bere etorkizunerako ere beharrezkoak dituela harnasguneak.

Zalbideren ekarpena abiapuntutzat hartuz, hiru ekarpenegile desberdinek horren inguruko zenbait proposamen luzatzen dituzte.

Olatz Altuna da horietan lehena, Mikel Zalbideren jatorrizko testua oinarri hartuta horren gaineko puntuz puntuko ekarpena egin duena. “Mintzajardunaren egoera eta azken urteetako bilakaera. Aurrera begirako erronkak. Mikel Zalbideren txostenari iruzkinak” izeneko testuak ondokoak jorratzen ditu: batetik, euskal hiztunaren definizioan sakondu du; bestetik, erabilera aitortua eta kale-neurketaren erabilera alderaketa jorratu du; erabilera indizea lortzeko galderari eutsi dio jarraian; analisi geoterritoriala izan du hizpide



segidan; eraginkortasun indizea ondoren; eta euskal hiztunaren ezaugarri eta joera batzuei erreparatu die amaitzeko.

Ikuspegi soziologikoari heldu dio **Xabier Aierdik** bere hausnarketan. “Mintzajardunaren egoera eta azken urteetako bilakaera. Mikel Zalbideren testuaren inguruko hausnarketa marginalak” idatzian, klase eta azpiklase sozialen hizkuntza-praktiken analisia ezinbestekotzat agertzen du soziologiak euskarari nola lagundu edo oztopatu diezaiokeen ikusteko. Begirada horretatik, halaber, azpimarratzera dakar euskararen etorkizunaren eraketan zientziak duen garrantzia.

“Mintzajardunaren egoera eta azken urteetako bilakaera. Aurrera begirako erronkak. Mikel Zalbideren Txostenari iruzkinak” izenburupean, **Lionel Jolyk** xehetasunez aztertzen du Zalbideren testua atal desberdinen gaineko ekarpen zehatzak proposatuz. Horien artean bereziki indar egiten du euska-

raren diagnostikoa burutzean baiko-
rregia edo ezkorregia izatea ekidin
behar dela esatean. Oreka horretatik
proposatzen ditu egileak bere haus-
narketak, non, besteak beste, harnas-
guneek duten garrantzia eta funtzioa
ukatu gabe, etorkizunean horiek bi-
zirautea zaila izango dela iradokitzen
duen. •